

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN EBALUAZIOA

INFORMAZIOAREN  
GIZARTEAN



2021

---

Izenburua: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa  
Informazioaren Gizartean"

Editorea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea  
Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2021eko martxoan eguneratua

---

# AURKIBIDEA

1.- TESTUINGURUA .....	4
2.- GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK .....	6
2.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN .....	6
2.2.- BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK .....	13
2.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA	22
2.4.- GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA .....	26
2.5.- BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK .....	31
3.- LEGEDIA .....	34
4.- DATU-ITURRIAK .....	36
5.- ERREFERENTZIA-AGIRIAK .....	39

# 1.- TESTUINGURUA

Azken hamarkadetako iraultza teknologikoak ekonomiaren eta gizartearen paradigma aldatzea ekarri du. Giza garapenaren beste etapa baten hurrera eraman gaitu, eta, orain, ekonomian eta gainerako giza jarduera guztietan informazioa, komunikazioa eta ezaguera gailendu zaizkigun honetan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (aurrerantzean, IKT) aldaketa bizkortu egin dute, baina ez hori bakarrik, aldaketaren oinarri eta zutabe ere bihurtu baitira. Garapenaren etapa berri honetan, gizartea osatzen dugunok (herritarrok, administrazioak, enpresek, beste edozein eragilek) ahalmen ia mugagabea dugu edonolako edukiak eskuratzeko, gure artean banatzeko, zabaltzeko eta artxibatzeko, instant batean ia-ia. Historia guztian inoiz ez da horrelakorik izan, eta gizartea errotik aldatzea ekarriko du, inondik inora.

Era bateko eta besteko desberdineriak ulertzeko, lehenengo eta behin, zer testuingurutatik abiatzen diren aipatu beharra dago. Castellsek "Red gizartea" deitu zion (1997): «Gizarte horretan teknologiek eta, batez ere, Internetek, bide ematen dute informazioa sortzeko, banatzeko eta erabiltzeko. Gainera, pertsonen, enpresen eta estatuen arteko elkarrekintza funtsezkoa da gizarte-, kultura- eta ekonomia-jardueretan» (Robles-en aipatua, 2017).

Gizarte-eredu horren garapenean desoreka batzuk gertatu dira. Adibidez, Interneten erabilerak erakusten du munduko biztanleen ehuneko handi batek ezin duela teknologia hori eskuratu; horrez gain, Internet edukita ere, denak ezin dira teknologiaren onura eta abantaila guztiez baliatu.

Desoreka horien ondorioz, **arrakala digitalak** sortu dira Internet erabiltzen duten herritarren eta teknologia hori erabiltzen ez duten herritarren artean (Van Dijk, 2006). Era berean, zer gizarte-taldetakoa zaren eta herritar bakoitzak zer baliabide dituen ere begiratu behar da, desberdintasun horien nondik norakoa ulertzeko, zeresan handia baitute. Horrek «**desparekotasun digitala**» sortzen du, hau da, «*batzuek Interneteko zerbitzuak erabiltzen dituzte, eta zerbitzu horiek ematen dituzten abantailak eskuratzen dituzte; beste batzuek, ordea, ez dituzte erabiltzen zerbitzu horiek, Internet eskuragarri eduki arren*» (Robles, 2017). Desparekotasun horrek hainbat galdera sortzen dizkigu: batzuek zergatik erabiltzen duten internet eta beste batzuek zergatik ez, eta zertarako erabiltzen duten.

Hori testuingurua. Jarraian, datozen orrialdeetan, ea hurbiltzen garen azaltzera gizon-emakumeen artean zer-nolako desparekotasunak dauden IKTak eskuratu, erabili, gozatu eta norberaren onerako baliatzeko orduan, alegia, generoaren arrakala digitalak.

Ikus dezagun gizon-emakumeak nola sartzen eta iristen diren IG-ko baliabide, ondasun eta zerbitzuetara -IKTetara loturik dauden bezainbatean-, nola

---

parte hartu, nola erabili, gozatu eta kontrolatzen dituzten; eta bai, badago desparekotasunik. Desparekotasun horiek gauzarik funtsezkoenetan gertatzen dira, hala nola azpiegituretara, internetera edo tresna teknologiko aurreratuenetara iristeko orduan; baita tresna eta IKT horiek erabiltzeko garaian ere (genero-arrakala digitalak); baina baita interneten edukiak sortzeko orduan, edo espazio zibernetikoen jabe egiteko garaian ere.

Baina, emakumeak eta gizonak zergatik hurbiltzen dira desberdin IKTetara? Ustea da hezkuntzan bertan ezaguera-arlo ezberdinetan sailkatzen direlako eta jarduten dutelako dela (bai ikasle- bai irakasle-garaian), eta baita gero ere, ikusi, bestela, zer gertatzen den IKTak ekoizteko sektorean (zenbateko parte-hartzea eta presentzia duten enpresa teknologikoetan, teknologien sorkuntzan, ikus-entzunezko edukien sorkuntzan, berrikuntzan eta abar). Egoera horrek arriskuan jartzen du emakumeen enplegarritasuna, bai eta sektore horietan lan egiteko eta eragiteko etorkizuneko aukerak ere, eta ez dezagun ahaztu sektore horiek geroz eta garrantzi ekonomiko handiagoa izango bide dutela, bai termino absolutuetan, bai erlatiboetan.

Administrazio publikoak, egoera horretan, ezin dira aldaketa sozial eta ekonomikoetatik at geratu, eraldaketaren buruan egon behar dute, datozkigun aukerak baliatzen jakiteko, gizarte-premiei erantzuna emanez eta gizarte bidezkoago, parte-hartzaileago eta iraunkorragoa sortzen lagunduz.

Azken batean, informazioaren gizarte horretan berdintasunaren bidetik garatu eta parte-hartu nahi badugu, funtsezkoa da berdintasunaren alorrean indarrean dagoen legeriak ezarritako aginduak zuzen-zuzen betetzea. Bada, agindu horien arabera, botere publikoek ere badute zer sustatua, alegia, emakumeek IGrako sarbide bera izatea eta eremu teknologikoetan protagonista izatea, emakumeek sektore teknologikoki aurreratuenetan eta bizienetan lan egitea, aukerarik gutxien dituzten jendarteak e-barneratzea, eta emakumeei IGn eta IKTetan parte hartzea eragozten dieten oztopoak ezabatzea, ahaztu gabe kulturaren eta gizartean nagusi diren ideiek sortzen dituztela funtsean.

## 2.- GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

### 2.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Emakumeek informazioaren gizartean daukaten presentzia eta parte-hartzea (informazioaren gizartea, aurrerantzean, IG izango da) ez da gizonek dutena bezalakoa; gizonak hurbilago egon ohi dira esparru horretatik, neskatoen eta mutikoen sozializazioa desberdina izan delako ume-umetatik.

Sozializazio desberdin horren ondorioz, *a priori* eta oro har, emakumeek IKTetarako joera txikiagoa dute, sektorea ez delako «oso femeninoa»; gainera, beste ezer baino lehen, besteak beste, errenta-maila apalagoa eta arlo honetan trebakuntza txikiagoa izatearen ondorioz, sarbide desberdina dute parekotasuna izateko aukera ematen duten azpiegituretan eta bitartekoetan.

Eta, **azpiegitura eta bitartekoak eskura izate hori aipatu dugunez**, begira dezagun EUSTATEk 2020an Informazio Gizarteari buruz egin zuen inkestan, eta ikusiko dugu EAEko emakumeen % 79,1ek daukala ordenagailua, baina gizonetzkoak goitiago dabiltzala, % 82,2ra iristen baitira. Oraindik ere 3 puntuko aldea, nahiz eta egia den itxura batean behintzat tartea murriztuz doala (4,2 puntu 2017an eta 6 puntu 2013an).

Ehunekotan, emakume eta gizon gehiagok daukate etxetik internetera sartzeko bideren bat, ordenagailua baino: emakumeen % 88,8k du Interneterako sarbidea etxean, eta gizonen % 91,9k; horrek esan nahi du beste gailu batzuk ere erabiltzen direla, hala nola telefono mugikorrek edo sarera konektatzeko tabletak. Hor ere, oraindik 3,1 puntuko aldea, 2017an gertatzen zen bezala, nahiz eta 2013an tarte hori 4.4 puntukoa zen.

Telefono mugikorrari dagokionez, Informazioaren Gizarteari buruz EUSTATEk 2020an egin zuen inkesta horren arabera, euskal herritarren % 97,9k du telefono mugikorra. Sakelako telefonoa duten pertsona guztien artean, emakumeen ehunekoa handixeagoa da (+3,1 puntu).

Joan gaitezen, orain, IKT ekipamenduetara. Bada, telebista, EAEn, ia etxe guztiek daukate (%99,4); hala dakusagu EINk gai honi buruz 2019an egin zuen inkestan (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Etxeko Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkesta). EUSTATen inkestaren arabera, berriz, familien %47k kable bidezko telebista du, %42,5ek ordainpekoa, %20,9k Internet bidezkoa, %9k antena parabolikoa eta %34,2k DVDa. Ekipamendu horietan, baina, gizon-emakumeak antzera xamar dabilta.

Aurreko datua hobeto osatzearen, EINren inkestak adierazten du ezen, EAEn, Interneterako sarbidea duten etxeen %100ek daukala banda

zabaleko azpiegitura, eta %77,9k daukela banda zabaleko konexio mugikorra eskuzko gailu baten bidez.

Eta, neska-mutikoen artean, ba al da alderik IKT ekipamenduak eskura nork bai ez? Bada, datuek erakusten dute ez dagoela alde handirik bi sexuen artean. Hala, EINren 2020ko inkesta horren arabera (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Etxeko Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkesta) EAEko 10-15 urte bitarteko nesken % 70,6k eta mutilen % 70,1ek dauka sakelako telefonoa; nesken % 96,7k eta mutilen % 97,2k, berriz, ordenagailua du.

Aztertutako adierazleek, oro har, **estreinako genero-arrakala digital** bat erakusten dute, alegia, IKTetarako sarbidean dagoen desberdintasun hori. Interneten eta ordenagailuaren erabileran nabari da (Castaño, 2008), batez ere bi adierazle hauetan: ordenagailua nork eduki bai ez, eta etxean Interneterako sarbidea bai ala ez (-3,1 puntu bi kasuetan).

Eta, gizon-emakumeek zer arrazoi dute Internet ez edukitzeko? Har ditzagun etxean Internet-sarbiderik ez daukatenak; bada, Internet erabiltzeko ezagutzarik ez dutela adierazi zuten guztien artetik, %63 emakumeak dira. Ordea, beste toki batetik sartzan direla esan zuten guztien % 68,9 ere emakumeak dira.

Eta IKT **erabileraren maiztasuna**? Zer ikus dezakegu? Bada, ordenagailuaren erabileraz den bezainbatean, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak dio (EUSTAT 2020)<sup>1</sup>, ordenagailua erabiltzen duten emakumeak %63,7 direla, eta gizonak, berriz, %71,6. Generoen arteko arrakala, hortaz, 7,9 puntukoa da, 2019an baino 0,3 zabalagoa. Interneten erabilerari dagokionez, emakumeen %80,9k eta gizonen %84,4k erabiltzen dute Internet<sup>2</sup>, hots, genero-arrakala ehuneko 3,5 mehetu da, eta 2019ko aldi berean baino ia puntu bat txikiagoa da.

2020ko azken datuak ez dauzkagu sexuaren arabera berezita, baina, oro har, badakigu Internet-erabiltzaileen ehunekoak behera egiten duela adinak gora egin ahala, ikasketa amaituak apalagoak diren neurrian, eta jardueraren arabera. Horrela, nabarmena da geroz eta internet-erabiltzaile gehiago dagoela 65 urte eta gehiagokoen artean (+4,7 puntu) eta 55-64 urtekoen artean (+4,5 puntu), baina Internet-erabiltzaileen ehunekoa adin-talde horietan bakarrik geratzen da %95era iritsi ezinik; gainera, bereziki urrun geratzen da 65 urte eta gehiagokoen taldea (%42k darabil internet), eta, adin-tarte horretan, emakumeak dira nagusi. Era berean, ia ikasle guztiek erabiltzen dute Internet ( % 99,7), baita biztanleria okupatuak ere ( % 97,9), baina langabezian edo lanik gabe dagoen biztanleriaren artean, erabilerari

<sup>1</sup> Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestari buruzko EUSTATen 2020/09/30eko prentsa-oharretik ateratakoa. Familiak. 2020 "

<sup>2</sup>Azken hiru hilabeteetan noizbait konektatu diren 15 urtetik gorako pertsonak.

% 60,4koa da, nahiz eta kolektibo horretan gertatu den hazkunderik handiena. Azkenik, goi-mailako ikasketak dituztenen %97,5ek eta bigarren mailako eta erdi-mailakoak dituztenen %93,4k erabiltzen du Internet, baina lehen mailako ikasketak edo apalagoak dituztenen artean, erabilera %60,8koa da. Eta herri txikietan eta baserri-inguruan zenbatek erabiltzen du internet? Zertan da aldaera hori? Bada, "Informazioaren gizartearen panorama" txostenaren arabera (EUSTATEk egina, 2019ko datuak erabiliz), orduko azken hiru hilabeteetan, landa-udalerrietan bizi zirenen % 77,9 konektatu zen Internetera, eta, urte horretan, Internet-erabiltzaileen ehunekoak % 80,2 izan zen.

Umeen artean zertan garen jakin nahi badugu, atzera IKT Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkestara jo beharko dugu (EIN, 2020). Bada, azken hiru hilabeteetan, EAEn, 10-15 urte bitarteko nesken %98,7k eta mutilen %93,1ek erabili du Internet (neskek 5,6 puntu gehiago). Edonola ere, interesgarria izango litzateke neskek eta mutilek sarea nola erabiltzen duten jakitea, erabilera-modu diferenteak ote dauzkaten jakitearren.

Izan ere, IKTak nola eta zertarako erabiltzen diren ere aztertu behar da, IKTetarako sarbidearen analisia osatzeko. Hor daukagu "**bigarren arrakala digitala**" deitzen dena, erabilera-intentsitateak eta erabilera-moduek sortzen dutena. Bigarren arrakala hori aztertuta, IKTak nola eta zertarako erabiltzen diren jakin nahi dugu. Horretarako, funtsezkoak diren bi dimentsio aztertu behar ditugu: gaitasun digitalak eta erabilera-ereduak.

EUSTATen 2018ko datuek erakusten dutenez, EAEn orduko azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili zuten 15 urte eta gehiagoko biztanleen artean, badira desberdintasun batzuk sexuaren arabera. Ehuneko horizontalei erreparatuta, emakumeek gutxiago parte hartzen dute erabilera-modu guztietan. Eragiketa eta ataza batzuk arruntak dira oso, eta gizon-emakumeak antzera xamar dabilta, nahiz eta andrea beti atzetik geratu, esate baterako, testu-prozesadore bat erabiltzea (emakumeak % 48,4, gizonak % 51,6), Interneteko nabigatzaileak erabiltzea (emakumeak % 48,4 eta gizonak % 51,6) edo aurkezpenak egitea (emakumeak % 48,2 eta gizonak % 51,8).

Beste gauza batzuetan, ordea, tartea zabalagoa da; ikus dezagun: datu baseen erabilera (emakumeak % 44,1 eta gizonak % 55,9), argazkien, bideoen edo DVDen edizioa (emakumeak % 45,2 eta gizonak % 54,8) edo programa espezifikoaren erabilera (emakumeak % 45,5 eta gizonak % 54,6).

Hortaz, dirudienez, orain ere, lana zenbat eta zailagoa, orduan eta jende gutxiagok egiten du, eta genero-arrakala orduan eta handiagoa.

Beste behin ere, deskribatutako parametro guztietan, tresna informatikoen aprobetxamendua eta erabilera txikiagoa da emakumeen artean, bereziki, konplexutasun handiagoko zereginetan, hau da, ezagutza gehiago behar dutenetan, hala nola aplikazioen konfigurazioarekin, programazioarekin edo periferikoen instalazioarekin zerikusia duten gauzetan. Datu horiek berretsi



egiten dituzte UNESCOk plazaratutako ondorioak (2019): "Emakumeek gizonen baino 1,6 aldiz joera handiagoa dute abileziarik eza adierazteko Internet erabiltzeko oztopo gisa".

EINren 2019ko inkestaren arabera (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Etxeko Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkesta), gaitasun edo trebetasun digitalak edo informatikoak oro har aztertzen direnean, alegia, joan bagara Internet-zerbitzuren baten noiz behinkako erabilera baino haratago, alde kezkarriak ikusiko ditugu: gabezia digitalak eta informatikoak dituzten emakumeen kopurua gizonena baino askoz handiagoa da termino absolutuetan eta erlatiboetan, hara: Espainian 6,2 milioi emakume baino gehiago dago gaitasun digitalik gabe, ezintasun hori duten gizonak baino 634.000 gehiago.

Gainera, gaitasun-arrakala handi horrek badaramatza astun-harri batzuk feminizazioari estu-estu lotuta daudenak. Adibidez, etxeko lanetan aritzen direnen % 55ek trebetasun digital eskasak edo hutsak dituzte, proportziorik handiena egoera laboral guztien artean.

Ordenagailu-erabilerari buruz EUSTATEk emandako datuak «adina» aldagaiarekin erkatzen baditugu, ikusten da, oro har, emakumeen eta gizonen artean aplikazio horien erabilera dauden arrakalak gero eta handiagoak direla 55 urtetik gora. Hortaz, esan nahi du programa horiek erabiltzeko zailtasun handiagoa dagoela urteetan aurrera egin ahala. Estatuko zifrek erakusten dute Interneten erabilera are desparekotasun handiagoa dagoela 55 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen artean.

Goazen erabilera-moduetara. Har ditzagun ehuneko horizontalak, eta, jolasean aritzeko denean, ikusiko dugu -eta deigarria da- gizon-emakumeen artean 30,9 puntuko aldea dagoela ordenagailuaren erabilera.

**Interneten erabilera zehazten duten helburu nagusiei dagokienez**, aldeak ikusten dira, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala. Nabarmenenak emakumeek helburu akademikoekin egiten duten Interneten erabilera nagusian daude, gizonen ez bezala (5,8 gehiago); aldiz, gizonen emakumeek baino erabilera pertsonal handiagoa egiten dute (%53,4H-%46,7-M). Erabilera profesionalari dagokionez, 2020an ia ez dugu alderik aurkitu emakumeen eta gizonen artean, eta erabilera hori berdindu eta hobetu egin da aurreko urteekin alderatuta, urte horietan gutxienez 3 puntuko aldea baitzegoen emakumeen artean.

**1. koadroa:** Interneteko konexioaren helburu nagusiaren bilakaera azken urteetan (2018-2019-2020), EAEko 15 urteko eta gehiagoko Interneteko erabiltzaile guztien artean

EAEko Interneteko erabiltzaile guztien Interneteko konexioaren amaieraren bilakaera	2018			2019			2020		
	% M	% H	Dif. M-H	% M	% H	Dif. M-H	% M	% H	Dif. M-H
Otros	57,6	42,8	14,8	52,5	47,4	5,1	56,4	43,6	12,8
Académico	54,3	45,7	8,6	54,6	45,5	9,1	52,9	47,1	5,8
Personal	50,6	49,4	1,2	49,8	50,2	-0,4	46,7	53,4	-6,7
Profesional	48,4	51,6	-3,2	48,0	52,0	-4	49,7	50,3	-0,6

Datuak geuk atera ditugu, Eustaten Informazioaren Gizarteari buruzko 2021eko inkestatik.

**Internet non erabiltzen den** jakitea denean kontua, esan dezagun EAEko biztanle asko etxean konektatzen dela (%94,7), eta, gutxiago, berriz, lantokian (% 37,1) edo ikastetxean (% 11). Gainera, % 79,2 beste nonbaitetik konektatzen da (EUSTATen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta, 2020). Konektatzen diren lekuaren arabera: etxetik eta lanetik, ez dago apenas desberdintasunik gizon-emakumeen artean; baina bai, ordea, ikastetxetik (5,6 puntu gutxiago emakumeak).<sup>3</sup>

Orain arte aztertuta ditugun elementuek bigarren genero-arrakala digitalarekin lotutako alderdi batzuk azaleratzen dituzte. Arrakala horrek, lehen esan bezala, erakusten du, batez ere, gizon-emakumeek IKTak zenbat erabiltzen dituzten eguneroko bizitzan.

IKTen erabilera aurreratuenei dagokienez, hor ere ikusten dira genero-desberdintasun batzuk. **Interneten erabiltzen diren zerbitzuei** dagokienez, Informazio Gizarteari buruzko Inkestaren arabera (EUSTAT, 2020), emakumeek osasunarekin lotutako zerbitzu gehiago erabiltzen dituzte, hala nola informazioa bilatzea edo hitzordu mediko bat hitzartzea (+10,5 puntu); online ikastaro gehiago egiten dituzte (+3,9 puntu); eta gehiago komunikatzen dira begiraleekin edo ikasleekin, hezkuntzako atariak edo webguneak erabiliz (+3,2 puntu). Gizonek, aldiz, albiste gehiago irakurtzen dituzte, egunkariak edo gaurkotasuneko aldizkariak (+6,7 puntu); interneteko programa gehiago ikusten dituzte (+5 puntu); eta gehiago jolasten dute edo joko gehiago deskargatzen dituzte (+4,7 puntu). Badirudi desberdintasun horiek emakumeek eta gizonek beren gain hartu dituzten genero-rolari eta estereotipoari lotuta daudela, eta rol eta estereotipo horiek espazio birtualera lekualdatu direla.

Komunikazio-zerbitzuetara ere emakumeak sarriago sartzen dira, hala dakar EInren inkestan (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Etxeko Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkesta; datuak, estatukoak dira): Internet bidez telefonoz deitzea edo bideoak egitea, +3,2 ehuneko; sare sozialetan parte hartzea, + 4,9 puntu; eta bat-bateko mezularitza erabiltzea, +1,9 puntu.

<sup>3</sup> Id.

Beste aldagai bat: "**e-merkataritzako**" eta "**e-administratioko**" kudeaketak eta zerbitzuak. Europako Agenda Digitalaren ustez, termometro polita da, IG nola ari den indartzen neurtzeko; bada, EInren 2019ko inkesta horren arabera, azken hiru hilabeteetan EAEko emakumeen % 49k eta gizonen % 48,3k erosi dute zerbait online. Hala ere, alde nabarmenak daude emakumeek eta gizonen erosten dituzten gauzetan. Hala, EUSTATen Inkestako datuek erakusten dutenez, emakumeek kirol-material eta arropa gehiago erosten dute (ehuneko +6,1 puntu), etxerako ondasunak (+5,7 puntu) eta bidaietarako zerbitzuak (+4,4 puntu); eta gizonen ekipamendu elektronikoa gehiago (+17,9 puntu), ekipamendu informatikoa gehiago (+13,1 puntu) eta ordenagailu-joko edo bideokontsola gehiago (+7,2 puntu). Halaber, Internet bidez ezer erosten ez dutenen artean, emakumeek gizonen baino gehiago aipatzen dute "segurtasunak kezkatzen nau" argudioa (+8,9 puntu)<sup>4</sup>. Gizonen, aldiz, gehiagotan aipatzen dute pribatutasunak kezkatzen dituela edo ez dutela beharrik izan (+13,6 eta 13,1 puntu, hurrenez hurren).

Beste muturrean, badirudi, estatuan behintzat, Internet bidezko ondasunen eta zerbitzuen salmenta ohikoagoa dela gizonen artean (+4,4 puntu). Hala dakar INEren 2019ko inkestan (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Etxeko Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkesta).

EAEko Administrazio Elektronikoen Barometroaren arabera, EAEko 16 eta 74 urte arteko biztanleen %46,7k Administrazio Elektronikoa erabili du 2019ko azken hilabeteetan (administrazio publikoen atarietan informatu dira, inprimakiak elektronikoki jaitsi edo bidali dituzte edo izapide edo prozedura bat oso-osorik teletramitatu dute), eta, datu hori lehenengoz jaso zenez geroztik lehen aldiz (2003), emakumeek gizonen baino gehiago erabili dute e-administrazioa (emakumeek %48,6k, eta gizonen %44,9).

**2. koadroa.** EAEko 16-74 urteko biztanleen artean, 2003tik 2019ra bitartean zenbaterik erabili duen administrazio elektronikoa.

EAEn administrazio elektronikoa erabili duten biztanleak. 2013-2019.	Emakumeak(%)	Gizonak (%)	Aldea E-G%
2003	13,6	17,2	-3,6
2004	19,7	22,7	-3,0
2010	30,4	34,0	-3,6
2015	44,1	46,6	-2,5
2018	44,8	44,5	0,3
2019	48,6	44,9	3,7

Geuk egina, EAEko Administrazio Elektronikoen Barometroan oinarrituta (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, 2019).

Banku elektronikoari dagokionez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Etxeko Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko 2019ko Inkestaren arabera, ohikoagoa da gizonen artean (+3,1 puntu). Ezin izan da estatistika-informaziorik bildu eduki digitalak sortzeko eta kudeatzeko zeregin eta praktika guztiei buruz. EAEn ez dago datu orokorrik, web-orriak edo blogak

<sup>4</sup> EUSTATen 2018ko Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestako datuak dira, ez baitago datu berriagorik sexuaren arabera bereizita. Aztertutako aldagaien arabera emakumeen eta gizonen banaketa adierazten duten ehuneko horizontalak dira.

sortzeari buruz, ezta eduki digitalak sortzeko eta kudeatzeko beste ekimen mota batzuei buruz ere. Bereziki, ez dago sexuen arabera bereizitako daturik. Hori dela eta, ezin da jakin emakumeek arlo horretan duten parte-hartzea nolakoa den, nahiz eta arlo horixe izan gai honen inguruan indarra hartzen ari denetako bat. Daturik ez egotea, berez, diagnostiko-elementua da, eta agerian uzten du beharrezkoa dela ahalegin handiagoa egitea emakumeen eta gizonen arteko egoera-desberdintasunak aztertzeko eta ikertzeko, eta, hartara, esku-hartze publikoa genero-ikuspegitik hobeto bideratzeko.

## 2.2.- BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Gizonek eta emakumeek ez dute berdin parte hartzen IKT ekipamendu eta zerbitzuetako hezkuntza- eta enplegu-baliabideetan, ezta komunikabideetan ere, eta horregatik dute presentzia ezberdina IGn.

**Hezkuntza eta prestakuntza:** Emakumeek eta gizonek ez dute prestakuntza-bide bera aukeratzen ez nerabezaroan ez, ondoren, goi-mailako ikasketetan. Besteak beste, genero-eraikuntza sozialek erakusten dute zer prestakuntza-bide hartu. Izan ere, hezkuntzaren arloan -eta hau aurrerago azalduko dugu hobeto-, neskak, oro har, "femenino" usteko jakintza-arloetara bideratzen dituzte, hau da, batez ere Gizarte Zientzia eta Humanitateetara, eta mutilak, berriz, aukera teknikoetara.

**Araubide orokorreko irakaskuntzetan,** gaur egun, Zientzietako **Batxilergoa** aukeratzen duten ikasleen banaketa nahiko paretsukoa da, eta hor eskaintzen dira aukera **zientifiko-teknologikoak**. Orain, har dezagun, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak egina, eta ikusiko dugu, 2018-2019 ikasturtean, EAEko ikastetxe guztietan, orotara, 16.410 gazte zeudela matrikulatuta Zientzietako Batxilergoan. Bada, ikasle horien guztien artetik, ia erdiak neskak ziren: % 48,2.

Ordea, ez da hori horrela gertatzen **erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketan**. Hor, EAEko gazteek beste era batera jokatzeko dute aukeraketak egiteko orduan. Hala, EUSTATen Eskola Jardueraren Estatistikaren arabera, 2018-2019 ikasturtean, **erdi-mailako Lanbide Heziketako** ikasleen %34,9 ziren neskak. Ikasturte horretan, bost espezialitate hauetan zegoen emakume gehien: Irudi pertsonala; Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Erkidegorako gizarte- eta kultura-zerbitzuak; Osasuna; eta Administrazioa eta kudeaketa); alegia, bakar bat ere ez zen espezialitate zientifiko-teknikoetakoa, orain arte ez baitira "hain femeninotzat" hartu. IKTekin lotura estuagoa zuten espezialitateetan ere gutxiago parte hartu zuten: %4,5 elektrizitatean eta elektronikan, %7,3 informatikan eta komunikazioetan, %19,2 irudian eta soinuan.

Ikasturte horretan, EAEn, **goi-mailako Lanbide Heziketan** matrikulatutako neskak ikasleen %35,8 izan ziren, hau da, batez beste, Lanbide Heziketan duten parte-hartzea ia puntu bat igo zen. Baina, nahiz eta espezialitate batzuetan presentzia hori apur bat hobetu den, espezialitate teknikoetan oraindik ere emakume gutxiago dago: %7,5 Elektrizitate eta elektronikan, eta %14 Informatika eta komunikazioetan. Ordea, Irudiari eta soinuari buruzko goi-mailako espezialitatean, haien partaidetza % 26,2raino igo zen.

**Unibertsitateko irakaskuntzei** dagokienez, egoera ez da asko aldatzen, eta emakumeek bokazio zientifiko-teknologiko gutxiago dituzte.

**3. koadroa.** EAEn 2019-2020 ikasturtean gradu-ikasketak espezialitate teknikoetan amaitu zituzten ikasleak (Ingeniaritza eta Arkitektura).

EAEn 2019-2020 ikasturtean gradu-ikasketak espezialitate teknikoetan amaitu zituzten ikasleak (Ingeniaritza eta Arkitektura).	Guztira	%
Emakumeak	943	29,7
Gizonak	2.228	70,2
Guztira	3.171	100

Geuk egina, EUSTATen Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021).

Aurreko taulan ikus daitekeenez, 2019-2020 ikasturtean gradu-ikasketak **espezialitate teknikoetan (Ingeniaritza eta Arkitektura)** amaitu zituzten EAeko ikasleen ia heren bat emakumeak izan ziren. Bitxia datua, kontuan hartuta azken hamarkada hauetan zenbat neska iritsi den goimailako ikasketetara eta, ehunekotan, neskak zenbat diren beste ezaguera-adar batzuetan, ia beti Ingeniaritza eta Arkitekturan baino bi bider gehiago baitira (batez beste, ezagutza-adar guztietan, unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten ikasleen ia % 60 emakumeak ziren, eta, adibidez Osasun Zientzietan, % 78,2).

Hurrengo taulan ikus daiteke ehunekotan zenbat emakume graduatu ziren IKTekin eta IGrekin lotutako **gradu tekniko zehatzetan**.

**4. koadroa.** IKT eta IG inguruko gradu-amaierako ikasleak. 2019-2020 ikasturtea

IKT eta IG inguruko gradu-amaierako ikasleak. 2019-2020 ikasturtea	Guztira	Emakumeak	Emakumeak (%)
Matematika	72	43	59,7
Fisika	82	21	25,6
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	61	9	14,7
Telekomunikazioen ingeniaritza teknikoa	74	26	35,1
Ingeniaritza Elektronikoa	35	14	40
Informatika Ingeniaritza	173	31	17,9
Telekomunikazio-sistemen ingeniaritza	7	2	28,5
Telekomunikazioko Ingeniaritza	11	1	9,0

Geuk egina, EUSTATen Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021).

Horrenbestez, ehunekotan, oro har, EAEn emakume gutxi amaitzen ditu ikasketak arlo horretara lotutako unibertsitate-titulazioetan; eta, aurreko taulan azaldutako titulazio gehienetan, ikasketak amaitzen dituztenen artean, emakumeak % 30 baino gutxiago dira.

Neska-mutilek zer prestakuntza-bide aukeratzen duten jakiteko azterlan hori osatzearen, irakasleen artean zer gertatzen den azter daiteke. Taulak erakusten du irakasle-multzoa oso feminizatuta dagoela DBHn, Batxilergoan eta HHEn, baina proportzio horrek behera egiten duela unibertsitatean edo lanbide-heziketan, egoera alderantzikatu arte.

**5. koadroa.** EAEko irakasleak, zenbat emakume guztira, eta %ak sexuaren eta hezkuntza-mailaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.

EAEko irakasleak, %tan zenbat emakume guztira, sexuaren eta hezkuntza-mailaren arabera.	Guztira	Emakumeak	Emakumeak (%)
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	11.308	7.571	66,9
Batxilergoa	5.555	3.544	63,7
Lanbide Heziketa (LH):	4.325	1.975	45,6
Helduen hezkuntza (HHE)	627	436	69,5
Unibertsitate-ikasketak	5.957	2.774	46,5

Geuk egina, Irakaskuntzaren Estatistika oinarri hartuta (Eustat, 2021).

Irakasleak sexuka eta jakintza-arloka nola banatzen diren jakin nahi izatera, ordea, LHko daturik ez dago, baina bai unibertsitate-irakaskuntzetakoak. Jakintza-arloka eta irakasle-kidegoka, unibertsitateko irakasleen artean banaketa hori irregularra da, inondik inora ere genero-segregazio horizontalaren eta bertikalaren adierazgarri. Horrela, irakasle eta ikertzaile guztiak kontuan hartuta, Ingeniaritza eta Arkitektura dira gehien maskulinizatuta dauden irakaskuntza-adarrak. Beraz, espezialitate teknikoetan, irakasle eta ikertzaileen % 33,5 dira emakumeak; Gizarte eta Lege Zientzietan, % 53,6; eta Osasun Zientzietan, % 50,5.

**6. koadroa.** EHuko irakasleak eta ikertzaileak, irakaskuntza-adarraren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.

EHuko irakasleak eta ikertzaileak, irakaskuntza-adarraren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea	Guztira	Emakumeak	Emakumeak (%)
Gizarte eta Lege Zientziak	1.416	759	53,6
Osasun-zientziak	959	484	50,5
Arteak eta Giza Zientziak	468	217	46,4
Zientziak	605	271	44,8
Ingeniaritza eta Arkitektura	928	311	33,5
<b>Irakasleak eta ikertzaileak, guztira</b>	<b>4.376</b>	<b>2.042</b>	<b>46,7</b>

Geuk egina, Unibertsitateetako Langileen Estatistikatik (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2020).

IKTei eta IGri lotutako jakintza-arloetan, emakumezko irakasle eta ikertzaileen presentzia oraindik ere askoz txikiagoa da betidanik feminizatuta egon diren beste diziplina batzuetan baino; beste horietan, halakoetan, emakumezko irakasle eta ikertzaileen presentzia eta partaidetza nabarmen handiagoa baita. Horrela, emakumezkoak dira Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia irakasle eta ikertzaileen %16,3; Konputazio Zientzietako eta Inteligentzia artifizialeko irakasle eta ikertzaileen %20,8; %17,7 Elektronikan; %27,1 Fisika Aplikatuan; %14,6 Sistemen Ingeniaritzan eta Automatikan; %14 Ingeniaritza Elektrikoan; %23,8 Hizkuntza eta Sistema informatikoetan; %14,2 Teknologia Elektronikoan; eta %15,8 Zeinlearen eta Telekomunikazioen Teorian.

**7. koadroa.** Estatuko unibertsitate publikoetako zentro propioak, sexuaren eta jakintza-arloaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.

Estatuko unibertsitate publikoetako ikastetxe propioetako irakasle eta ikertzaileak, sexuaren eta ezagutza-arloaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Fisika Aplikatua	1.438	390	27,1
Hizkuntza eta Sistema Informatikoak	1.711	408	23,8
Konputazioaren Zientzia eta Adimen artifiziala	1.084	226	20,8
Elektronika	271	48	17,7
Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia	962	157	16,3
Seinalearen eta Komunikazioen Teoria.	904	143	15,8
Sistemen Ingeniaritza eta Automatika	775	113	14,6
Teknologia elektronikoa	1.149	163	14,2
Ingeniaritza Elektrikoa	748	105	14,0

Geuk egina, Unibertsitateetako Langileen Estatistikatik (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2020).

Lanbide-kategoriaka ere irakasle eta ikertzaileen banaketa heterogeneoa da, eta segregazio bertikal nabarmena erakusten du. EHUko 2020ko irakasle eta ikertzaile guztiak oinarritzat hartuta, oso emakume gutxi dago katedretan eta langile emerituetan, alegia, badagoela zailtasun gehigarri bat hezkuntzako ardura, ordezkari eta ospe handieneko lanpostuak lortzeko; hala ere, emakume eta gizonen ordezkari eta orekatua da ikertzaileen eta irakasle ikertzaileen artean, eta unibertsitateko eta unibertsitate-eskoletako titulartasunak ere orekatuta daude.<sup>5</sup>

Laburbilduz, goi-mailako ikasketa teknikoetan ez dago emakumezko erreferenterik, eta, ondorioz, neska gazteek bokazio zientifiko-tekniko gutxiago izaten dituzte.

### Enplegua eta karrera profesionala.

Karrera teknikoetan emakume gutxi egote horrek asko baldintzatzen du prestakuntza araututik lan-merkaturako igarobidea.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Sektoreari buruzko Estatistikaren arabera (EUSTAT, 2020)<sup>6</sup>, EAEn, IKTen sektoreko 2.691 enpresa dago<sup>7</sup>; merkataritza eta zerbitzuetako 2.616; eta manufaktura-industriako 75. Establezimendu horietan 23.534 langile aritzen dira: 18.816 merkataritza eta zerbitzuetan, eta 4.718 industrian.

"IKTen eta Edukien Sektorea Espainian 2019an" txostenaren arabera (Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionala – ONTSI-, 2019), Estatuan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta Edukien Sektorean (IKTES sektorea) **enplegatutako guztien** % 35,3 emakumeak dira, hau da, ekonomia nazional osoan emakumeek duten presentzia baino hamar puntu gutxiago. IKTESen sektorean lan egiten duten emakume gehienek zerbitzuen sektorean jarduten dute (% 76,1).

<sup>5</sup> Datuak 2020ko azaroan bildu genituen, EHUko gardentasun-ataritik. Irakasleak eta ikertzaileak kategoriaka. <https://www.ehu.es/es/web/gardentasun-ataria/iri-kategoriaren-arabera>

<sup>6</sup> 2018ko datuak

<sup>7</sup> EUSTATen arabera, manufaktura-eta zerbitzu-arlo horietan jardueran nagusia IKTak garatu, ekoiztu, merkaturatu eta intentsiboki erabiltzearekin loturik dago.



IKTen sektoreko beste enpresa batzuk I+Gn aritzen dira. EAEn, guztira, 1.277 lagunek jarduten dute enpresa horietan, eta % 23,9 emakumeak dira (305).

Biztanleria Aktiboaren Inkestak (EIN, 2019) berresten du emakume baino askoz gizon gehiago aritzen diela IKTekin lotutako jardueretan; eta emakumeak baino 550.000 gizon gehiago ari dela lanpostu teknologikoetan lan egiten: bikoitza baino gehiago.

**8. koadroa.** IKT arloetan (ekonomiarako funtsezkoak) zenbat gizon-emakume aktibo eta zenbat lanean.

Aktibo	Emakumeak	Gizonak
Telekomunikazioak	43,8	80,4
Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk	97,0	261,9
Informazio-zerbitzuak	5,4	9,2
Arkitekturako eta ingeniariatzako zerbitzu teknikoak; saiakuntzak eta analisi teknikoak	87,4	165,4
Ikerketa eta garapena.	28,7	29,2
<b>Guztira</b>	<b>262,3</b>	<b>546,1</b>
Lanean	Emakumeak	Gizonak
Telekomunikazioak	41,1	75,2
Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk	96,3	251,8
Informazio-zerbitzuak	5,0	9,2
Arkitekturako eta ingeniariatzako zerbitzu teknikoak; saiakuntzak eta analisi teknikoak	85,0	159,8
Ikerketa eta garapena	27,3	28,6
<b>Guztira</b>	<b>517</b>	<b>1070,7</b>

IKT arloetan (ekonomiarako funtsezkoak) zenbat gizon-emakume aktibo eta zenbat lanean. Datuak 2019ko hirugarren hiruhilekoak dira, eta milakotan daude. BAI/EIN.

Gainera, maskulinizazio ikaragarri handi hori urtero-urtero indartu egiten da. Plantillan IKT espezialistak dauzkaten enpresen %58an, kide guztiak gizonetzkoak dira, aurreko urteetan baino askoz gehiago. Hala da, bai: langile guztiak gizonak diren IKT plantillak ia % 10 ugaritu dira urtebetean. 2019 betean, IKT plantilletan, Espainiako enpresen % 9k soilik dauka erabateko oreka gizon-emakumeen artean.

Zifra handi horietara xeheago begira jarrita, ikusiko dugu emakumeen urritasun hori are eta larriagoa dela teknologian edo IKTetan soilik aritzen diren lanbideetan: enplegua duten programatzaileen % 20 baino gutxiago da emakumezkoa; eta ingeniarien % 10 baino ez dira emakumeak. Antzeko proportzioak ikusten dira mundu digitalarekin lotutako adar profesional guztietan:

- Zenbat emakumek parte hartzen duen zibersegurtasunean: % 7
- Zenbat emakumek parte hartzen duen bitcoineko espezialisten komunitatean: % 8,7
- Zenbat emakumek duen eskumenik adimen artifizialean: % 19.
- Talde sortzailean emakume bat duten Espainiako startupen ehunekoa: % 16
- Cloud computing postuetan dauden emakumeen ehunekoa: % 12

- Datuekin eta AArekin lotutako lanbideetan diharduten emakumeen ehunekoa: % 25.
- Emakumeen enplegua bideojokoen sektorean: % 16 (baina jokalarien % 41 emakumeak dira).
- Eta, azkenik, emakumeek goi-mailako eta erdi-goi-mailako teknologiako sektoreetan duten presentzia: % 28, eta horrelaxe dago duela hamar urtetik.<sup>8</sup>

### **Zer soldata-arrakala dagoen IKT lanpostuetan.**

Orain arte deskribatutako egoera nahiko larria ez... eta bada elementu bat are eta gehiago desitxuratzen dituen IKT munduan gizon-emakumeen artean dauden aldeak: soldata-desberdintasuna. Izan ere, 2017an, generoaren arabera soldata-arraila % 19 zela zenbatetsi da<sup>9</sup>.

IKT lanpostuak betetzen dituzten emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea nabarmenagoa da senior eta goi-kargudunen profiletan. Hara: 5-15 urteko esperientziako senior profiletan, emakumeek % 24 gutxiago kobratzen dute, eta % 13 gutxiago goi-karguetan. 2 eta 5 urte bitarteko esperientzian dago gizonen eta emakumeen arteko soldata-alderik txikiena, %1.

### **Telelana.**

Teknologiak aldaketa sakonak ekarri ditu gure lanean. Orain, mugarik gabeko erakundeak dauzkagu, lan-leku birtualak, eta lanarekin denbora errealean hari gabe konektatzeko ahalmena.

Etorri badatorren informazio-gizartean, telelana izango da berrikuntza iraultzaileenetako bat. Lan egiteko modu horrek lan-ohiturak aldatu, eta enplegua sortzea sustatzen du, batez ere autoenplegua.

2019an, EAEko enpresetako langile guztien herenak bazeukan urrutiko konexioa gailu eramangarri baten bidez, baina telelanak langileen % 4ri baino ez zion eragiten, betiere Enpresak eta informazio-gizarteari buruzko inkestaren arabera (EUSTAT).

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak<sup>10</sup> 2020an egindako kontsultaren arabera, konfinamenduaren aurretik lan egiten zuten emakumeen %31 eta gizonen % 23 inguruk aukera izan dute telelana egiteko COVID-19k EAEn eragindako berrogeialdian.

Koronabirusaren pandemiak ekarri duen krisiak erakutsi digu digitalizazioaren eskutik beste lan-aukera batzuk ere izango ditugula, baldin eta telekomunikazioen azpiegitura-sare ona badaukagu. Bide malguagoak ireki ditu, lantokian itxurak egiten egon beharrik gabe.

Administrazio publikoek jarro dituzte zerbitzu batzuk autonomo eta ETEen eskura, hala nola Inplantariak, telelanean hasten laguntzeko eta lantegi

<sup>8</sup>Emakumea eta Teknologia:

[https://www.ugt.es/sites/default/files/mujer\\_y\\_tecnologia\\_2020\\_vf1.pdf](https://www.ugt.es/sites/default/files/mujer_y_tecnologia_2020_vf1.pdf)

<sup>9</sup> [Evolución de la Brecha Salarial de Género en el Sector de Información y Comunicaciones](#).EIN

<sup>10</sup>EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. Euskadiko biztanleria COVID 19aren aurrean. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2020.

horretan aholkuak emateko, hartara herritarrei zerbitzua ematen jarrai zezaten, kutsatzeko arriskurik gabe.

Baina telelanak azterketa zehatzagoa eskatzen du, berdintasunaren bidean atzerapausorik gerta ez dadin, pandemia-garaian hori gertatzeko oso arrisku handia egon baita (COVID). Egia da malgutasuna ematen duela lana eta familia uztartzeko, baina telelanaren hedapenak, pandemiaren egoerak behartuta (ikastetxeak ixtea, eguneko egoitza-zentroak ...), areagotu egin du emakumeek jada beren gain hartzen zituzten zaintza-lanen gainkarga, ahaztu gabe, batzuetan, denborarik, baliabiderik eta leku egokirik gabe jarraitu dutela telelanaren bitartez lan egiten.

Nolanahi ere, garrantzitsua izango litzateke gai horiek guztiak kontuan hartuta arautzea telelana, inoiz ez dezan atzerapenik ekarri emakumeentzat.

**Eduki digitalen industria** da sortzen ari den jarduera-sektoreetako bat, eta potentzial handia du etorkizunean enplegu-aukerak eta aberastasuna sortzeko. ONTSik (Telekomunikazioen eta Informazio Sistemen Behatoki Nazionalak) badu txosten bat "IKTen eta Edukien Sektorearen Espainiako Urteko Txostena 2019" izenekoa, erakusten duena Estatuan 10.035 enpresa daudela eduki digitalen sektorean, hau da, IKTen sektoreko enpresa guztien % 28,6. Sektorean lan egiten duten emakumeen artean (% 35,3), % 19,8k edukien sektorean egiten du lan.

Gaur egungo gizarteek hartu duten bidean, adimen artifiziala (AA) deritzonaren espazio gero eta zabalago baterantz goaz, ulertuta adimen artifiziala dela makinek eta sistema artifizialek itxuratzea berez giza adimenarenak diren prozesu zenbait.

"Women in the Digital Age" azterlanaren arabera (Europako Batzordea, 2018), AAK oso ondorio negatiboak izan ditzake gure bizitzetan, gizon-emakumeen berdintasunaren eta denon aniztasunaren ikuspegitik. Makina eta aplikazio berriak programatzeko orduan erabiltzen diren algoritmoak eta datuak IKT profesionalak ezartzen dituzte. Horregatik, gerta daiteke tresna horiek gure arteko genero-, adin- eta arraza-uste ustelak transmititzen jarraitzea, eta AA gailuak betiko diskriminazioa erreplikatzailerik, baita handiagotzea ere.

Google, Amazon, Facebook, Microsoft eta Apple bezalako teknologia-enpresa handiek gauza bera esaten dute: adimen artifizialari eta Machine Learning-ari lotutako tresnek, etorkizunean, gure bizitzako edozein alderdi aldatu ahal izango dute (Simonite, 2018). Hala ere, berrikuntza horiek garatzen parte hartzen duten guztien artean, goi-mailako erabaki-ahalmena duen jende-taldean, % 12 baino ez dira emakumeak. Adibidez, Google Brainen AAKo taldean, %94 gizonak dira, %6 emakumeak eta %70 arraza-ukiturik gabeko pertsonak. Europar Batasunean, softwarea programatzen eta garatzen diharduten aditu guztien artean, emakumeak %5 dira, gutxi gorabehera.

AAk ere badiu uste ustelak, eta garbi dago zer edo zer egin beharra dagoela, teknologiaren aniztasun-gabeziari aurre egiteko. AAn gaur egun

nagusi den joera irauliko badugu, funtsezkoa da datuaren kalitatea zaintzea, hau da, ustekeriarik gabeko datuak erabiltzea algoritmoak sortzeko. Gainera, beharrezkoa da antolamendu-kulturetan aldaketak egitea, botere-asimetriak murriztea eta gainditzea, programazio-talde anitzagoak eta inklusiboagoak eratzea, sexu-jazarpena ezabatzea, hautaketa- eta kontratazio-prozesuetan emakumeak baztertzeko ohiturak ezabatzea, eta konpentsazio bidegabeak eta emakumeen parte-hartze sinbolikoa (baina ez eraginkorra) saihestea. Bazterkeria-egoera horiek guztiek eragiten dute emakume askok, baita aukera gutxiagoko jendarteek ere, adimen artifizialean lan egiteari uztea edo saihestea.

Bideojokoen industriari dagokionez, emakumeen erabateko parte-hartzea erronka bat da oraindik ere. Emakume asko ez da identifikatzen gaur egungo bideojokoek darabiltzaten gaiekin. Gainera, emakume horietako askok iruzkin matxistak jasan behar izaten dituzte online jokatzeko dutenean, eta arlo horretan dituzten ordainsari profesionalak lankideen ordainsarien azpitik daude.

Bada txosten bat, erreferentziakoa sektore honetan: "Libro Blanco del Desarrollo Español de Videojuegos 2019"; han ageri denez, gero eta emakume gutxiago ari da lanean, eta jada % 16 besterik ez dira. Bitxia da, bideojoko-erabiltzaileak nahiko orekatuta baitaude (gamerrak), % 41 emakumezkoa izanik.

Ondorioz, eskura ditugun datuak ikusita -eta bat datoz prestakuntza-aukeraketekin eta generoari buruzko agindu kulturalekin-, ondoriozta daiteke emakumeak bereziki zigortuta daudela IKT sektoreetan, emakumeen parte-hartzea gizonena baino askoz txikiagoa baita.

**Ekipamendu eta zerbitzuetarako sarbidea.** IKTak erabiltzeko orduan gizonen aldean emakumeek bizi dituzten desabantaila horiei erantzuteko, *ad hoc* politika publikoak egiten dira eta berariazko azpiegitura eta ekipamendu publikoak gaitzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eginkizun hori, neurri handi batean, Kzgune euskal telegune-sare publikoak betetzen du. Sare horren helburuen artean dago eten digitala desagerraraztea, herritarrek bazterturik geratzeko izan ditzaketen arriskuak murriztea, eta teknologia berriak erabiltzeko gaikuntza ematea herritarrei. *KZgunearen Memoriako* 2019ko datuen arabera, sarea 246 zentrok osatzen dute, Euskadiko hainbat udalerritan. Beraz, biztanleriari dagokionez, irismen ia unibertsala du.

2019an, 38.305 pertsona aktibo zenbatu dira KZgunean; haietako % 58,7 emakumeak dira eta % 41,3 gizonak, eta 13.625 erabiltzaile berri, % 56,8 emakumeak eta % 43,2 gizonak. Erabiltzaile aktiboen eta erabiltzaile berrien artean emakumeak gizonak baino gehiago dira adin-talde guztietan, 16 urtetik beherakoetan izan ezik. Beraz, erabiltzaileen profila egonkor mantendu da, eta gehienak emakumeak dira.

Horrenbestez, datuek erakusten dute sareak alfabetatze digitalerako aukerak eta IKTetara nahiz internetera sartzeko aukerak sortu dituela eta

sortzen jarraitzen duela informazioaren gizartetik at geratzeko arriskua duten EAEko herritar askorentzat, eta, bereziki, egoera ahulenean egon daitezkeen emakumeentzat.

Genero-arrakala digitalei aurre egiteko, ezinbestekoa da baliabide publikoak eskuragarri jartzea, emakumeek IKTak eskuratzeko aukera izan dezaten. Aukera hori eman behar zaie, bereziki, dituzten ezaugarri eta aldagaiengatik (adina, herritartasuna, ikasketak, errenta-maila, aniztasun funtzionala, etab.), laguntza gehien behar duten emakumeei.

**Komunikabideak.** Komunikabideek eragin handia dute emakumeek IGn duten parte-hartzean, ikuspegi bikoitz batetik: genero-rolak eta -estereotipoak erreproduzitzeko eta finkatzeko agentzia gisa, eta IGren beraren parte diren aldetik.

Lehenik eta behin, komunikabideek laguntzaile-lana egiten dute emakumeen eta IKTen arteko harremanei buruzko **genero-rolak eta -estereotipoak erreproduzitzen**. Ildo horretan, informazioaren tratamendua sexista izan ohi da, eta emakumeek sektore horietan duten parte-hartzea ikusezin bihurtzeko joera du, ez bakarrik eguneroko bizitzan IKTen erabiltzaile gisa, baizik eta, nagusiki, sektore horietako profesional gisa, IKTen diseinatzaile eta sortzaile gisa, azken batean, IGaren, ziberespazioaren eta hango edukien protagonista gisa. Beste kasu batzuetan, informazioak konnotazio peioratiboak itsasten dizkie sektore horietan protagonista diren emakumeei, hizkuntzaren eta irudien bidez.

Komunikabideek, **teknologia- eta IKT-lanbideei lotutako estereotipo** jakin batzuk zabalduz, bokazio-bereizketa gerta dadin lagun dezakete: ohikoena da informatikariak gizon adimendun gisa irudikatzea, baina frikiak, lagunarterako baldar xamarak eta harremanetarako traketsak, arraroak eta/edo aspergarriak; eta ingeniariak, berriz, gizon buru-karratuak izaten dira, lanak gizartetik at edukitzen ditu eta lanaldi amaiezinak daukate; eta, jakina, neska gazteak nekez identifikatuko dira eredu horiekin.

Bestalde, komunikabideak, aldaera digitalean, IGren<sup>11</sup> parte dira; bada, adar horietan ere ez dago emakumeen presentzia eta parte-hartze orekaturik. Egia da emakume asko sartu dela komunikabide horietan lan egitera, baina orekarik ez dago oraindik -eta urrun dago- ez arlo guztietan parte hartzeari dagokionez; ez erabaki-postu estrategikoetan; ez egiten, ekoizten eta argitaratzen den informazioaren gaineko kontrolean; ez eta informazio horri ematen zaion tratamenduan ere.

<sup>11</sup>Komunikabide tradizionalen adar digitalak (prentsa digitala, telebista eta irrati digitalak) edo soilik digitalak diren hedabideak.

### 2.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Dokumentu honetan agerian geratu denez, orain arte, emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartu dute IGn, eta oraindik ere hala da. Ez da kasualitatea, ez da ezer isolatua, publikoak izan diren esparruetan emakumeek gutxiago parte hartu izan dutelako gertatu da, eta IKTak eta IG ere hala dira.

Atal honetan, begiak 3 arlotan pausatuko ditugu: EAEko erakunde publikoetako zuzendaritza-karguetan –administrazio-maila guztietan begiratuko dugu-; IKT irakasle-lanean; eta IKT elkarte profesionaletako zuzendaritza-batzordeetan. Ea ikusten dugun, datuak eskuan, gizonen eta emakumeen zer presentzia eta parte hartzea daukaten.

#### Erakunde publikoetako zuzendaritza-karguak.

Nabarmena da erakundeetan ere nola islatzen den joera bera, emakumeek ez baitute nahikoa ordezkariarik erabaki-guneetan, batez ere unibertsitatean eta arlo honetako elkarteetan. Erabakiak hartzean emakumeak nahikoa ordezkariarik ez egotea eta inguru horietan gizonak nagusi izatea bi faktore batzuearen ondorioa da: emakumeak motel ari dira gora egiten erabaki-esparruetan, eta sartu berriak dira arlo teknikoetan.

**Zuzendaritza-kargu publikoak:** Aztertzen badugu zer presentzia duten emakumeek informazioaren gizarte-arloan eskumena duten EAEko zuzendaritza-erakunde publikoetako ardura-postuetan, ikusiko dugu gaur egun orekaturik dagoela, nahiz eta gizon baino emakume gutxiago egon (16 gizon eta 13 emakume). Ildo horretan, nabarmena da azken legegintzaldietan emakumeak dezente egin duela aurrera -presentziaz ari gara- arlo horretan eskumena duten sailletako postu batzuetan. Horren inguruko datuak ondorengo koadroan ikus daitezke.

**9. koadroa.** Emakumeak eta gizonak zuzendaritza-kargu publikoetan. Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEA EUSKO JAURLARITZAKO GOI-KARGUETAN				
EUSKO JAURLARITZA	Saila eta sailburuordetza		Zuzendaritzak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	2	1		2
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena.	2		1	3
<b>Guztira</b>	<b>4</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>5</b>

Geuk egin dugun, erakunde bakoitzaren web-orrietako datuak oinarri hartuta (2021eko otsaila)

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZEA FORU ALDUNDIETAKO GOI-KARGUETAN				
FORU-ALDUNDIAK ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA	Ahaldua		Zuzendaritzak	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
AFA. Ekonomiaren Garapena, Berrikuntza eta Erronka Demografikoa	1			1
AFA. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa	1			1
BFA. Ahaldu Nagusiari Laguntzeko Unitatea				2
BFA. Sustapen ekonomikoa	1			1
BFA. Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	1		1	
GFA. Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza		1		
GFA. Gobernantza	1		1	
GFA. Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea.		1		1
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>6</b>

Geuk egin dugu, erakunde bakoitzaren web-orrietako datuak oinarri hartuta (2021eko otsaila)

### Unibertsitateko irakasleak.

Aurreko epigrafean nabarmendu denez, EAEko irakasleen artean emakumeen parte-hartzea eta presentzia ez da bat eta bera jakintza-arlo guztietan, baina ezta lanbide-kategoria guztietan ere.

Illo horretan, IKTekin lotutako unibertsitate-espezialitateetan, emakumeak ez daude behar bezain ordezkatuta ez katedradunen kopuruari dagokionez, ez irakasle titularren kopuruari dagokionez, eta urritasun hori are nabarmenagoa da espezialitate horietako katedretan, hurrengo koadroak erakusten duen bezala<sup>12</sup>.

**10. koadroa.** Estatuko unibertsitate publikoetako irakasle eta ikertzaileak, jakintza-arloaren, lanbide-kategoriaren eta sexuaren arabera.

Estatuko unibertsitate publikoetako irakasle eta ikertzaileak, jakintza-arloaren, lanbide-kategoriaren eta sexuaren arabera	Emakumeak		Gizonak	
	Katedrak %	Titularrak %	Katedrak %	Titularrak %
Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia	11	17,1	89	82,9
Konputazioaren Zientzia eta Adimen artifiziala	15,5	24,5	84,5	75,5
Elektronikoa	23,2	14,5	76,8	85,5
Fisika Aplikatua	15,6	30	84,4	70
Sistema-ingeniaritza	4,7	15,5	95,3	84,5
Ingeniaritza Elektrikoa	7,7	12,2	92,3	87,8
Hizkuntza eta Sistema Informatikoak	19,3	23,4	80,7	74,9
Teknologia elektronikoa	5	15,6	95	84,4
Seinalearen Teoria eta Komunikazioak	11,2	18,2	88,8	81,8

Geuk egin, Unibertsitateetako Langileen Estatistikatik (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2020).

<sup>12</sup> Taula honetan ez dira sartu unibertsitate-eskoletako datuak.

### Sektoreko profesionalen elkarte eta elkargoak.

Garbi dago lehen baino emakume gehiago dagoela IKTen inguruko elkargo eta elkarte profesionaletako zuzendaritza-batzordeetan, baina, oraindik ere ordezkartza hori txikia da, eta nagusiki bokal modura aritzen dira, eta ez presidente- edo presidenteorde-karguetan.

Hala, Euskadiko Informatikako Ingeniarien Elkargo Ofiziala gizon batek zuzentzen du, eta Gobernu Batzordean emakume bakarra dago (8 lagun)<sup>13</sup>. Euskadiko Telekomunikazio Ingeniaritzako Elkartean, Zuzendaritza Batzordean, gizonekoa dute buru, eta presidenteordea ere gizonekoa dute, baina 6 emakume dago, guztiak bokalak (guztira, 17 kide)<sup>14</sup>. Euskadiko Informazio Teknologien eta Teknologia Elektronikoen alorreko Industrien Elkarte (GAIA): Zuzendaritza Batzordean, gizonekoa zuzendari nagusi bat, bi gizonekoa presidenteorde eta emakumezko presidenteorde bat, eta 15 kide, haietako 3 emakumeak<sup>15</sup>. Euskadiko Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Klusterrari dagokionez (Eiken), Zuzendaritza Batzordean presidentea eta presidenteordea ditu (gizonak), eta, kide guztien artean (16), 4 dira emakumeak, guztiak bokalak<sup>16</sup>.

Azkenik, Euskadiko Teknologia Libreen eta Ezagutza Irekiaren Enpresen Elkarteak (ESLE) presidente bat eta presidenteorde bat ditu (gizonak), eta Zuzendaritza Batzordean, 10 kideren artean, emakume bat daukate (bokala)<sup>17</sup>.

Ondorioz, aurrera egin den arren, organo horietan oraindik ere emakume gutxi egoteak adierazten du emakumeak berandu sartu direla arlo horretan, eta zailtasun gehigarriak dauzkatela botere-guneetara iristeko, tradizioz maskulinizatuta egon baitira.

### IBEX35eko enpresak.

Zuzendaritzetan, emakumeek erantzukizun txikiagoko postuak betetzen jarraitzen dute. Hala ere, multinazional teknologikoen filial espainiarretatik gutxienez 10etan, emakumeak dira buru edo zuzendari, baina zuzendaritza-organoeetan duten presentzia urria da oraindik ere. IBEXeko IKT enpresetako administrazio-kontseiluen % 23 dira, baina, oraindik, emakume bakar bat ere ez da presidente, ez eta kontseilari delegatu ere.

### Emakumeak zuzendaritza-erantzukizuneko postuetan (enpresak):

Teknologia eta telekomunikazioen arloan, emakume exekutiboen ehunekoa % 8tik ia % 12ra igo da<sup>18</sup>, Fedeak egindako azterlan baten arabera. Baina oraindik urrun dago zuzendaritza-organoeetan emakume gehiago dituzten beste sektore batzuetatik, hala nola: Finantza eta Higiezin Zerbitzuak (% 25) eta Oinarriko Materialak, Industria eta Eraikuntza (% 22,2).

<sup>13</sup> 2020ko azaroko datuak, hemendik: <https://www.eiieo.eus/como-se-crea/junta-de-gobierno/>

<sup>14</sup> 2020ko azaroko datuak, hemendik: <http://www.aitpv.com/organos-de-gobierno-junta-directiva-y-asamblea-general/>

<sup>15</sup> 2020ko azaroko datuak, hemendik: <https://gaia.es/quienes-somos/organos-gobierno>

<sup>16</sup> 2020ko azaroko datuak hemendik: <https://www.eikencluster.com/estructura-del-cluster/>

<sup>17</sup> 2021ko azaroko datuak, hemendik: <http://www.esle.eu/es/quienes-somos>

<sup>18</sup> Infoemplegua: [Informe-empleo-IT mujer: 10 profesiones con futuro](#)



## **Ekitaldiak**

Sektore teknologikoan, emakumeak urri, bigarren mailan eta sexualizaturik ote dauden? Ikusi zer gertatzen den, adibidez, Bartzelonako Mobile World Congress bezalako ekitaldietan. Hizlarien eta parte hartzaileen artean, emakumeen kopurua gizonena baino askoz txikiagoa izan zen (hizlarien % 30 baino gutxiago izan ziren emakumeak; eta ikusleen % 23 baino ez ziren emakumeak), baina, horrez gain, emakumea publizitate-erakargarri gisa erabili zen, gauza hutsala balira bezala<sup>19</sup>, genero-estereotipo lotsagarriak indartuz, sektore horrek puntako horrelako ekitaldietan erakutsi beharko lituzkeen lan-, etika- eta moral-arloko gutxieneko arauak urratzeraino.

---

<sup>19</sup> <https://www.elperiodico.com/es/mobile-world-congress/20190301/mobile-world-congress-2019-mujeres-balance-7331777>

#### 2.4.- GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Gizarte-arauek eta genero-estereotipoek ere nabarmen baldintzatzen dute informazioaren gizartea -beste esparru batzuk bezalaxe-, hala nola emakumeek eta gizonak IKTetara egiten duten hurbilketa, haietara sarbidea izateko eta haiek erabiltzeko ereduak, eta emakumeek eta gizonak esparru horretan interakzioa izateko duten modua; gainera, eragina dauka orobat eduki berriak sortu eta kudeatzeko esparru hori berenganatu behar dutenean.

Betidanik, balio maskulinoak lotu zaizkie zientziei eta teknologiei, hau da, tradiziozko **unibertso sinbolikoak** arrazoiari, logikari, kalkuluari eta pentsamendu abstraktuari lotu die dimentsio maskulinoa. Dimentsio femeninoa, aldiz, emozioei, naturari, intuizioari eta hizkuntzari lotu ohi zaie.

Unibertso sinboliko horrek gure gizartean irauten du oraindik modu lauso batean; hala, gizonak haurzarotik izaten dute ohiko harreman bat teknologekin, bai haur-joko eta -jolasen bidez, tresnen bidez, eskuz erabiltzeko jolasekin eta ikerketa-sormeneko jolasekin. Teknologia gizonetzkoekin gehiago lotzen badugu, arrazoa da emakumeek zailtasun handiagoak dituztela, neskak direnetik, teknologia horiek berezko dituzten hizkuntzak eta tresnak eskuratu eta bereganatzeko. Neskak eta mutikoen **sozializazio ezberdinak** indartu egiten du, horrenbestez, batzuk zein besteak, diziplina jakin batzuetara (bai diziplina sozialak edo humanistikoak, bai diziplina teknikoak) bideratzen dituzten uste edo iritzi horiek, berezko dituztelakoan. Horrek erakusten digu teknologiak ez direla neutroak genero-ikuspegitik.

IKTei eta informazioaren gizarteari buruzko **genero-aurreiritziak eta -estereotipoak** sozialki eratuta daude, eta funtsezkoak dira gizonak IKTetarako duten joeran (zaletasunean): komunikabideen, liburuen, publizitatearen bidez zabaltzen den iruditeria sozialean teknologia-zaleak gizonetzkoak, gazteak eta «freak» samarrak izan ohi dira.

Genero-aurreiritziek eta -estereotipoek ere eragina dute emakume askok IKTei dagokienez noiz gehiago noiz gutxiago erakusten duten erresistentzietan eta gaitzusteetan. Ibilbide akademikoak aukeratzeko orduan ere nabari da, ez baita berdina aukeratzen gizona edo emakumea izan, hezkuntza-etapa guztietan gainera.

Azaldu dugu, dagoeneko, internet ez daukaten emakumeek zer arrazoi ematen dituzten; nahikoa da ondo ulertzeko **gizon-emakumeek nola ikusten duten beren burua** IKTei dagokienez, baina, era berean, jakin nahi badugu emakumeak zergatik ez diren hurbiltzen IKTetara eta IGra, hortxe ditugu motibo usenetako batzuk: ez ikustea ez abantailak, ez onetik zer duten, ez eguneroko bizitzan zertarako balio duten, etab. Edonola ere, jarrera horiek ez dute indar bera emakumeak adinekoak diren, edo migratzaileak, edo prestakuntza gutxiakoak, edo landa-eremuetakoak eta abar.

Faktore horiek gaur egun ere emakume askoren inklusio digital betearen eragozten dute, eta ez dira soilik genero-rol tradizionalak esleitzen dituen sozializazio-prozesuaren ondorio, bai eta mundu digitala ez ezagutzearen ondorio ere; horregatik, prestakuntza eta gaikuntza beharrezkoak dira barrera horiek gainditzeko.

Era berean, **produktzio- eta ugalketa-zereginen** banaketa tradizionala, oso urrun baitago etxe-esparruan emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunetik, gehigarizko oztopoa da emakumeek harreman inklusiboagoa eta orekatuagoa izan dezaten IKTekin. Familia zaintzea eta etxeko lanak egitea emakumeei esleitze orokortu horrek, batez ere zeregin horiek guztiak ordaindutako enpleguari gainjartzen bazaizkio, sarbidea izateko haien aukerak murrizten ditu, ordutegiei, maiztasunari eta intentsitateari dagokienez, baina bai eta norberaren denbora, aisialdia izateko aukerari dagokionez ere (emakumeak IKTetara askatasun handiagoarekin hurbildu ahal izateko, hain baldintzatuta ez egoteko, hain utilitaristak izan gabe ludikoagoak, sortzaileagoak eta parte-hartzaileagoak diren erabilera eta zerbitzu berriak aztertze).

IKTak ezinbesteko tresnak dira ezagutzaren eta informazioaren gizartera hurbiltzeko eta hartan parte hartzeko, baina, gainera, ahalmen izugarri handia dute **eraginkortasuna hobetzeko denboraren kudeaketan**. Duela zenbait hamarkada lan-merkatuan sartu ondoren, gero eta protagonismo handiagoa daukate emakumeek beste sektore batzuetan (administrazioa, ondasunen eta zerbitzuen salerosketa, banka elektronikoa, telemedikuntza eta abar), eta horrek eragin handia izan dezake esparru pertsonalean.

Zehazki, **administrazio elektronikoa** edo Administrazioak gero eta zerbitzu gehiago ematea Internet bidez baliagarria izan daiteke pertsonen bizitza-alderdi guztiak hobeto bateratzeko, eta, alde horretatik, ez bakarrik denbora hobeto kudeatzen laguntzeko, bai eta generoko rolen eboluzioa sustatzeko ere (erantzunkidetasun handiagoa barne, lanak banatzeaz den bezainbatean). Testuinguru horretan, "[Euskadiko Agenda Digitala 2020](#)" aipatu behar da erreferentziatzeko dokumentu gisa.

Administrazio publikoaren digitalizazioan kontuan hartu behar da biztanle askok ez dituztela Administrazio elektronikoaren zerbitzu osoa erabili ahal izateko behar diren banakako baliabideak edota trebakuntza jakin digital batzuk, edo ez direla ohartzen haren erabilgarritasun objektiboaz. Administrazio elektronikoa ez erabiltzeak zerikusia izan lezake Interneten erabilerarekin, baina baita biztanleen eta Administrazio Publikoaren arteko harremanekin ere. Esfera hori Gobernu Onari dagokio, ariketa demokratiko batean. Kasu horretan, administrazio digitalean ere baden desparekotasun digital hori injustizia bihurtzen da, baldin eta pertsona bati gainerako herritarren esku dauden zerbitzuak erabiltzea ukatzen zaionean, pertsona horrek trebakuntza digital txikiagoak dituelako.

Dena den, azken azterlanetan ikus daitekeenez, ustekeria batzuk direla-eta -oraindik ere asko baitago- badira dimentsio batzuk neurtzen ez direnak, baina hain justu ere dimentsio horiek emakumea ukitzen dute bereziki, eta ezinbestekoak dira errealitatea neurtzeko. Hala, Big Data erabiltzeko orduan, funtsezko abiapuntu bat da ez ahaztea jendarte batzuen aitzinean oraindik ere badagoela arrakala bat teknologia digitaletara iristeko, emakumeez ari gara batez ere, jauzia oraindik hortxe baitago, nahiz eta azken urteetan mehetu egin den. Faktore horiek guztiek emakumeak ikusezin bihur ditzakete, eta baliteke, informazio ezagatik, emaitzetan arrastoa uztea, baita ondorioak baliorik gabe geratzea ere, batez ere zaugarrien diren emakumeei dagokienez, zaugarritasunaren arazoak direnak direla: adina, alfabetatze digitala, kapital sozioekonomikoa eta abar.

"Big data" arduraz eta etikoki erabiltzeko, ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea, ikerketaren galdera sortzetik hasi eta algoritmoaren programaziora arte. Horrek guztiak erronka legal eta etikoak planteatzen ditu, batez ere datu horien gardentasunari, biltegitratzeari, segurtasunari eta erabilera arduratsuari dagokienez.

Horregatik guztiagatik, "Big data" ren erabileran genero-ikuspegia, gainera, inklusiboa izan behar da, eta inplikaturako kolektibo eta talde guztiekin hitz egin behar da. Horrek ekarriko du "big datari" erabilera bidezkoagoa ematea, onura kolektibora bideratuago.

Azkenik, kontuan hartu behar den beste arriskubide bat datuak prozesatzeko behar den estatistika-informazioa eta teknologiak erabiltzeko aukera dela. Aukera hori, termino orokorretan, mugatuagoa da emakumeen kasuan, teknologiak erabiltzen dituzten moduegatik. Hori dela eta, Nazio Batuetako adituek Agenda 2030 bete den hausnartzeko prozesuan azpimarratu dituzte arrakala handia dagoela datuak dituzten pertsonen eta datuak ez dituzten pertsonen artean, horrek «dakitenen eta ez dakitenen» arteko banaketa egiten baitu munduan.

Ondorio moduan, etorkizunean herri-administrazioen eta herritarren arteko interakzioa gero eta digitalagoa izango dela dirudien honetan, genero-arrakala digitalak areagotu egin daitezke, eta emakume asko gizarte digitaletik kanpo gera daitezke.

### **Emakumeen kontrako indarkeria matxista**

IKTak eta sare sozialak emakumeen aurkako indarkeria baliatzeko tresna berriak bihurtzen ari dira.

"Euskadiko gazteen egoerari buruzko diagnostikoan" begiratzen badugu (Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen, 2019an) ikusiko dugu gaur egungo gazteek denbora asko ematen dutela sare sozialetan elkarreraginez: 15 eta 29 urte arteko euskal gazteen %99,7k sare sozialen bat erabiltzen du, eta %98,2k egunero edo ia egunero erabiltzen du.

Bada, **indarkeria sexista** espazio birtual horietara ere hedatu da, eta, gainera, indarkeria-mota berriak agertu dira, hala nola **ziberjazarpena** (Internetek eskaintzen dituen aukerak erabiliz, biktimaren bizitzan behin eta berriz sartzea, bat-batean eta baimenik gabe), sexting-a (mugikorraren edo Interneten bidez irudiak edo bestelako eduki sexual edo erotikoak zabaltzea), edo grooming-a (helduek adingabeen aurka egiten duten sexu-abusua, internet bidez lortzen dituzten informazioa edo irudiak baliatuz haiek beldurtzeko). Gainera, teknologia horiek bikote-harreman batean erabiltzeak, kontrol- eta presio-aukerak ugaritu egiten ditu, eta jazarpenak izan dezakeen ondorioaren larritasuna areagotzen du.

Indarkeria-mota horren adierazpenak askotarikoak izan daitezke: xaxatze eta jazarpen etengabea online (mezuak bidali, emakumeen profiletan iruzkinak argitaratu, zurrumuru faltsuak sortu, etab.), mugikorrak lokalizatzeko zerbitzuak erabiltzea emakumea non dagoen jakiteko, grabazio edo argazki intimoak edo sexu-izaerakoak zabaltzea sare sozialen bidez, sexu-erasoak grabatzea, identitatea lapurtzea, profil faltsuak sortzea, biktimak zelatatzeo aplikazioak (spyware) eta abar. Nahiz eta gehienetan indarkeria psikologikoa edo osotasunaren kontrakoa baliatu, abusu fisikoa eta suizidioa ere ekar dezake, besteak beste.

Estatuko zenbait azterlanetan ondorioztatzen denez, gazteek oso ondo dakite nola funtzionatzen duten sare sozialek edo internetek; ordea, interneteko erabilera-eredu batzuk ez dituzte arrisku-praktikatzat hartzen, hala izanik ere. Adibidez, grooming edo sexu-jazarpenaren arriskua areagotu dezaketen praktika batzuk egiten dituzte gazteek: nesken % 37,1ek eta mutilen % 44,5ek ezezagun bat lagun gisa onartu dute sarean, behin edo gehiagotan; nesken % 17,4k eta mutilen % 23k esan du bere amak edo aitak baimenduko ez lukeen argazki bat eskegi duela birritan edo gehiagotan, eta nesken % 4,7k eta mutilen % 8,2k webcam-a erabili dute ezezagunekin komunikatzeko.

2017an, Gaztedia eta Generoari buruzko Barometroa egin zen: genero-indarkeriari buruz zer pertzepzio zuten galdetu zitzaizen 15 urtetik 29 urtera bitarteko 1.200 gazteri. Hor jasotako datuen arabera, adin-multzo horretako emakumeen % 27,5ek esan du bikotekideak mugikorra berrikusi diola; % 20ari bikotekideak mehatxu egin dio edo iraindu egin du internet edo mugikorr bidez; % 9,7k esan du bikotekideak bere irudiak, mezuak edo irainak zabaldu dituela, bere baimenik gabe, eta % 8,2 mugikorrak edo bideoz grabatu dute edo argazkiak egin dizkiote, emakumeak jakin gabe.

Ikusi dugu ziberbiolentzia horiek nola eragiten duten nesken artean; har dezagu, orain, berriki egin den beste azterlan hau : El iceberg digital Machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia en la CAE", Esibaliz Linares

Bahillok egina eta Emakunek argitaratua<sup>20</sup>. Ondorio interesgarriak dakartza, hala nola, eta besteak beste, teknologiak erabiltzeko trebezietan eta ohituretan nerabeen artan dagoen arrakala sendotzen ari dela; sarean emakumeen gorputza hipersexualizatzen ari dela; gizonen nagusitasun digitala; sare sozialetan irudia hegemonikoa dela, eta batez ere neskei egiten diela kalte; eta maitasun erromantikoaren mito batzuk normalizatu eta barneratu egin direla, batik bat nesken artean, eta mendekotasun-harremanak izatera eramaten dituela.

Teknologia berriek arriskuak sortzen dituzte, baina, horrez gain, errealitate berriak ere badakartzate berekin. Errealitate horiek beste irudikapen, kontzeptu eta harreman eredu batzuk eraikitzeke erabil daitezke, eta, beraz, gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko. Gazteen Behatokiaren aipatu diagnostikoan esan ziguten teknologia berriak direla-eta orain gazteek lehen baino gehiago parte hartzen dutela jarduera artistikoetan, batez ere ikus-entzunezkoetan. 2012 eta 2016 artean, asko igo da parte-hartzearen ehunekoa: 2008an %39,8 zen, eta 2012an %42,9, baina 2016an %55,1era iritsi zen.

Gainera -eta halaxe ageri da Estíbaliz Linares Bahilloren azterlanean-, mundu digitalean badira pitzadurak, bai, baina badira aldaketarako aukerak ere, batiz bat kontuan hartzen baldin baditugu **ziberfeminismoa**, hezkidetzeta eta alfabetatze digital kritikoa. "Feminitate disidenteak" arau patriarkalekin batera bizi diren neurrian, errealitateak erakusten digu "identitateetan badirela iraulkatzeak eta aldaketak, eta neska nerabe batzuek jarrera eta pentsamendu kritikoa hartzen dutela".

Espazio birtual berriak aukera polita dira pertsona edo kolektiboa bere istorioaren protagonista izan dadin, eta gizarte-aldaketa sustatzeko, lehenik espazio birtualean eta, gero, espazio errealean. Emakumeek, espazio horietan, aukera dute eta hasiak dira nortasun subjektibo berriak sortzen, beren artean harremanak izaten eta indarrean dauden estereotipoak eta irudiak aldatzen, ITak ulertzeko, haietara gerturatzeko eta haiekiko harremanak izateko modua aldatuz, espazio digitala berenganatuz beren ikusmoldeen eta beharren arabera. Internet plataforma erabakigarria bihurtu da azken hamarkadan ziber-aktibismo feministaren mugimendu berriak sortzeko, ingurune horretan borrokan egiteari ekin diotenak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde, eta hori bereziki interesgarria da ingurune horretan bertan borroka egiteko sareko sexismoaren aurka edo ziberjazarpenaren aurka, gizarte-harremanetarako euskarri berri horretara ere etorriak baitira jokabide horiek. Geroz eta kanpaina digital gehiago ari da ekinean, hedabide digitaletan edo sare sozialetan sinbolikoki zabaltzen den sexismoaren edo genero-indarkeriaren aurka; hainbat salaketa-proiektu egiten da emakumeen bazterkeriaren edo desberdinkeraren aurka; inondik inora ere eremu honetan aktibismoa goraka doan seinale.

<sup>20</sup>

([https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/certamen\\_publicaciones/e\\_s\\_def/adjuntos/vi\\_certamen\\_emakunde\\_2018.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/certamen_publicaciones/e_s_def/adjuntos/vi_certamen_emakunde_2018.pdf))

## 2.5.- BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
Europako Funtsen 2014-2020 programazio-aldian kofinantzaturiko jardueretan, <b>IKTen erabilera eta kalitatea hobetzea</b> eta herritar guztiak izatea haietarako <b>sarbidea</b> .	<b>2. gai-arloko helburua</b> Europako Egitura eta Inbertsio <b>Funtsak, 2014-2020:</b>
<b>“Emakumeei eta gizonen hezkuntzarako eskubide bera</b> bermatzea, tratu-berdintasunaren printzipioa modu aktiboan barneratuz, hezkuntza-helburu nahiz - jardueretan, eta emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak sortzea saihestuz, jokabide sexistengatik edo halakoekin zerikusia duten gizarte-estereotipoengatik.	<b>24. art., 3/2007 LO</b>
Emakumeek eta gizonen <b>aukeretan berdintasuna izan behar dutelako printzipioa</b> benetan kontuan hartzea informazioaren gizartearen <b>programa guztiak diseinatu eta gauzatzean</b> . <b>Hizkuntza eta eduki ez-sexistak bermatzea</b> osorik edo zati batean diru publikoak ordaindutako informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparruko proiektuetan. <b>Emakumeak informazioaren gizarte guztiz barneratzea sustatzea</b> berariazko programak garatzearen bidez, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologietan sarbidea izateari eta prestatzeari dagokienez, <b>baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboak eta landa-eremuak</b> kontuan hartuta. Aurreko horrek <b>emakumeen informazioaren gizarte-esparruan sortutako edukiak</b> barruan hartzen ditu.	3/2007 Lege Organikoko <b>28.</b> <b>artikulua</b>
Informazio- eta komunikazio-teknologiak baliatzeko aukera-berdintasuna bultzatzea, <b>landa-eremuko emakumeei</b> zuzendutako politikak eta jarduerak erabiliz, eta irtenbide alternatibo teknologikoak aplikatzea, teknologia haiek hedatzea ezinezkoa denean.	3/2007 Lege Organikoaren <b>30.5</b> <b>artikulua</b>

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p><b>Genero-transbertsalitatea</b> jasotzea berrikuntza teknologikoaren eta informazioaren gizartearen esparruan garatutako politiken printzipio gidari gisa. Gehiago jakitea <b>emakumeek</b> zientziaren eta <b>teknologiaren esparruetan duten parte-hartzeaz</b>, hala nola <b>generoko eten digitalaz</b>, politika eta jarduera berriak prestatzeko.</p> <p>Lidergoa hartzea emakumeak <b>protagonista izan daitezten esparru teknologikoetan</b>, eta <b>behar diren gaitasunak har ditzaten (jariakortasun teknologikoa)</b>, eta talde ahulak kontuan hartzea.</p> <p>Ekintzak prestatzea <b>Internet askatasun-esparrua</b> eta genero-harremanak eta -estereotipoak aldatzeko tresna izan dadin, eta emakumeen proiektuak zabaltzea bultzatzea dezan.</p>	<p>2008-2011 Aukera Berdintasuneko Plan Estrategikoa <b>1-5 HELB., 5. Ardatza</b></p>
<p>Generoaren araberako eten digitalak murriztea, teknologia berriak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handituz; bereziki, nagusien artean eta horretarako zailtasunak dituzten taldeen artean.</p>	<p><b>1.4.1.</b> VII. EGBP</p>
<p><b>Teknologiako sektore aurreratu eta intentsiboenetan</b> emakumeen okupazioa sustatzea.</p>	<p><b>4.1.4.</b> VII. EGBP</p>
<p><b>Baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen e-inklusioa</b> sustatzea, berriazko ekimenak garatuz <b>eten digitala ahalik gehiena gutxitzeko</b>.</p>	<p><b>1.4.1.</b> VII. EGBP</p>
<p>Gizarte-komunikabideen programazioetan hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta <b>emakumeen parte-hartze aktiboa</b> eta sexu bien <b>presentzia orekatua</b> eta <b>irudi plurala</b> bermatzea, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaintzea ume zein gazteentzako edukiak. <b>Emakumeek sustatutako edo emakumeei zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatzea, gizonetik berdintasunean</b>, baita emakumeak ahalduentzako lagungarri diren jarduerak ere.</p>	<p>4/2005 Legearen <b>26,3. art.</b> 3/2007 Lege Organikoaren <b>36.-41. artikulua</b></p>
<p>Hezkuntza-politika publikoak garatzea, hezkuntza-ereduek helburu hauek izan ditzaten: sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, diskriminazio-mota oro baztertzea, eta <b>generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea</b>.</p>	<p>4/2005 Legearen <b>28. art.</b> <b>24. art.</b>, 3/2007 LO</p>
<p>Ikasleak treba daitezten sustatzea, <b>aukera akademikoak</b> egiten dituztenean <b>ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak</b>.</p>	<p>4/2005 Legea, <b>29.d) art.</b></p>



BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Unibertsitate-sisteman emakumeek eta gizonek <b>aukera berdinak</b> izatea bultzatua, bai irakasle-karreran, bai erabakiak hartzen diren eremuetarako sarbidean; eta, horrekin batera, sexu bietako ikasleek <b>diziplina eta jakintza-arlo guztietan</b> partaidetza orekatua izatea sustatuko dute.</p> <p>Orobat, bermatuko dute <b>jakintza-arlo guztietako irakaskuntzan eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia</b> txertatzen dela, hizkera ez-sexista erabiltzen dela, eta <b>emakumeen jakintza</b> eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako <b>ekarpen</b> sozial eta historikoa jasotzen dela.</p>	<p><b>33. artikulua</b> 4/2005 Legearen <b>1. eta 2.</b> artikulua)</p> <p>3/2007 LO, <b>25. art.</b></p> <p><b>1,1.4 VII.</b> EGBP</p> <p><b>3.2.2.</b> VII. EGBP</p>

OHARRA: Informazioaren gizarteari dagozkion berdintasun-agindu espezifikoek gain, modu orokorrean sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere aztertu behar dira; horiek guztiak, generoaren araberrako eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako alderdi juridikoei buruzko dokumentuan aurki daitezke.

### 3.- LEGEDIA

<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA</b>
<a href="#">4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako</a>
<a href="#">EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (EGBP)</a>
<a href="#">XII. legegintzaldirako gobernu-programa</a>
<a href="#">Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa (GBPPE 2020)</a>
<a href="#">Euskadiko 2020ko Agenda Digitala</a>
<a href="#">36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko ereduak.</a>
<b>ESTATUKOA</b>
<a href="#">3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna eraginkorra izatekoa</a>
<a href="#">Uztailaren 11ko 34/2002 Legea, Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzkoa.</a>
<a href="#">56/2007 Legea, abenduaren 28koa, Informazioaren gizartearen beharrak sustatzeko neurriei buruzkoa.</a>
<a href="#">9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzko Orokorra.</a>
<a href="#">Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.</a>
<a href="#">6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituena.</a>
<a href="#">3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena Zibersegurtasuna.</a>
<b>EUROPAKOA</b>
<a href="#">Genero Berdintasunerako Estrategia Europarra 2020-2025</a>
<a href="#">Europarako 2020ko Agenda Digitala</a>
<a href="#">2014-2020 aldirako Europako egitura- eta inbertsio-funtsak: azken testuak eta iruzkinak</a>
<a href="#">Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/31/EE Zuzentaraua, ekainaren 8koa, informazioaren gizarteko zerbitzuen zenbait alderdiri buruzkoa, bereziki barne-merkatuko merkataritza elektronikoari buruzkoa (aurrerantzean, "Merkataritza elektronikoari buruzko zuzentaraua").</a>
<a href="#">Kontseiluaren 2007/C 68/01 Ebazpena, 2007ko martxoaren 22koa, Europan informazio-gizarte segurua lortzeko estrategiari buruzkoa (EO c 68, 2007-03-24koa, 1-4).</a>

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/881 (EB) Erregelamendua, 2019ko apirilaren 17koa, ENISAr (Zibersegurtasunerako Europar Batasunaren Agentzia) eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien zibersegurtasunaren ziurtagiriari buruzkoa, 526/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena ("Zibersegurtasunari buruzko Erregelamendua").

2015/1535 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2015eko irailaren 9koa, informazio-prozedura bat ezartzen duena informazio-gizartearen zerbitzuei buruzko erregelamendu teknikoen eta arauen arloan.

Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2016ko apirilaren 28koa, aro digitalean genero-berdintasuna eta emakumearen ahalduntzea lortzeari buruzkoa.

Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2014ko apirilaren 15koa, hezkuntza-teknologia berriei eta hezkuntza-baliabide irekiei buruzkoa.

Europako Parlamentuarentzako eta Kontseiluarentzako baterako komunikazioa: EBren Zibersegurtasun Estrategia Hamarkada Digitalerako.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena

## **NAZIOARTEKOA**

NBEk mundurako egin gailurra, Informazio-gizartea aztertzeko

UNESCO, Qingdaoko Adierazpena

## 4.- DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik, zenbatek daukan etxean ordenagailua. Lurralde historikoka datoz datuak (%), sexuaren, ikasketa amaituen eta adinaren eta jarduerarekiko loturaren arabera.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik, zenbatek daukan etxean internet. Lurralde historikoka datoz datuak (%), sexuaren, ikasketa amaituen eta adinaren eta jarduerarekiko loturaren arabera.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik, zenbatek daukan etxean informazio- eta komunikazio-teknologia-tresnarik eta telebistarik. Lurralde historikoka datoz datuak (%).</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik, zenbatek erabiltzen duen internet. Lurralde historikoka datoz datuak (%), sexuaren, ikasketa amaituen eta adinaren eta jarduerarekiko loturaren arabera.</li> </ul>	<p><a href="#">Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak</a></p> <p>EUSTAT (2020)</p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleak (milakotan), etxeko ekipamenduaren, sexuaren, hiruhilekoaren, lurralde historikoaren eta aldiaren arabera.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik zenbatek erabiltzen duen internet (azken 3 hilabeteetan), zertarako erabili duen, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik zenbatek erabiltzen duen internet (azken 3 hilabeteetan, eta miliakotan), aldagai hauen arabera: batez ere zertarako konektatu den, sexua, hiruhilekoa, lurralde historikoa eta aldia.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleak, aldagai hauen arabera: zergatik ez daukaten internetik, sexua, hiruhilekoa, lurralde historikoa eta aldia.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik, azken 3 hilabeteetan zenbatek erabili duen internet (miliakotan), aldagai hauen arabera: erabilitako programak, sexua, adina, hiruhilekoa eta aldia.</li> <li>• EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik zenbatek erabiltzen duen internet (azken 3</li> </ul>	<p><a href="#">Informazioaren gizarteari buruzko inkesta, 2018.</a></p> <p>EUSTAT (2019)</p> <p><a href="#">EAEko internet erabili duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleak, erabiltzeko helburuaren, sexuaren eta adinaren arabera</a></p> <p>EUSTAT (2021)</p>	<p>Urtekoa</p>

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<p>hilabeteetan), nondik sartu den, sexuaren eta adinaren arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen artetik zenbatek erabiltzen duen internet, aldagai hauen arabera: zergatik duten internetetik erosten, sexua, hiruhilekoa, lurralde historikoa eta aldia.</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>IKT produktuen ekipamendua etxebizitza nagusietan, autonomia-erkidegoen eta ekipamendu motaren arabera.</li> <li>Etxebizitza nagusietako Internet-sarbidea, autonomia-erkidegoen eta konektatzeko moduaren arabera.</li> <li>10-15 urteko umeen datuen bilakaera (2006-2019) autonomia-erkidegoen, aldagai nagusien eta aldiaren arabera.</li> <li>Herritarrak, aldagai hauen arabera: autonomia-erkidegoa eta hiri autonomia, sexua, ezaugarri demografikoak eta IKTen erabilera.</li> <li>Internet edo softwarea erabiltzeko trebetasun digitalak, aldagai hauen arabera: arrazoi partikularrak, trebetasun-mota, ezaugarri demografikoak.</li> <li>Azken 3 hilabeteetan arrazoi partikularrengatik erabilitako Internet zerbitzuak, zerbitzuaren izaeraren eta ezaugarri demografikoen arabera.</li> </ul>	<p><u>Informazio eta Komunikazio Teknologien Etxeko Ekipamenduei eta Erabilerari buruzko Inkesta. EIN (2019)</u></p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazio elektronikoa azken hiru hilabeteetan erabili duten 16 eta 74 urte bitarteko biztanleak, sexuaren arabera bereizita (%) EAE 2003-2019.</li> </ul>	<p><u>EAEko Administrazio Elektronikoaren barometroa</u> Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (2019)</p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Batxilergoan matrikulatutako ikasleak, aldagai hauen arabera: titulartasuna, sexua, autonomia-erkidegoa/probintzia, ikasturtea eta modalitatea. 2018-2019</li> </ul>	<p><u>Unibertsitateik kanpoko Irakaskuntzei buruzko Estatistika</u> Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa (2020)</p>	<p>Urtekoa</p>

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unibertsitate publikoetako ikastetxe propioetako irakasle eta ikertzaileak, aldagai hauen arabera: unibertsitatea, sexua eta irakaskuntza-adarra.</li> <li>• Unibertsitate publikoetako ikastetxe propioetako irakasle eta ikertzaileak, sexuaren eta ezaguera-arloaren arabera. 2018-2019</li> </ul>	<u>Unibertsitateetako langileen estatistika</u>  Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEn zenbat ikasle Lanbide Heziketan matrikulaturik, graduka eta familia profesionala, eta lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018-2019</li> <li>• Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleak, sexuaren, mailaren, lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera. 2018-2019</li> </ul>	<u>Eskola Jardueraren Estatistika</u>  EUSTAT (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko unibertsitateetan ikasketak amaitutako ikasleak, zentroaren titulartasunaren eta ikasketa-adarraren arabera sailkatuta, eta ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera bereizita. 2018-2019</li> <li>• EAEko unibertsitateetan gradu-ikasketak amaitu zituzten ikasleak, titulazioaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018-2019</li> </ul>	<u>Unibertsitate-estatistika</u>  EUSTAT (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) sektoreko enpresen bilakaera EAEn, lurralde historikoaren eta jarduera ekonomikoaren arabera. 2010-2018</li> <li>• EAEn, Informazio eta Komunikazio Teknologien sektoreko (IKT) langile-kopuruaren bilakaera (lanpostuak). 2010-2018</li> </ul>	<u>Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko estatistika.</u>  EUSTAT (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• IKT arloetan (ekonomiarako funtsezkoak) zenbat gizon-emakume aktibo eta zenbat lanean. Datuak 2019ko hirugarren hiru hilekoak dira, eta milakotan daude. BAI/EIN.</li> </ul>	<u>Biztanleria aktiboaren inkesta.</u>  EIN	Hiru hilean behin

## 5.- ERREFERENTZIA-AGIRIAK

- Bideo-jokoak ekoizten eta garatzen dituzten enpresen Espainiako elkartea (2020). Libro Blanco del desarrollo español de videojuegos 2019.
- Castaño, C. (2008). La segunda brecha digital.
- Europako Batzordea (2018). Women in the Digital Age.
- Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (2019). Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana, Gobernantza Publiko eta Autogobernu SailaXI. Itegiintzaldia. 2018-2021
- Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (2020)Berdintasunaren edo sexuaren araberako estatistikak, adierazleak eta argitalpenak.
- Emakunde, 2018. 2018 zifren txostena Emakumeak eta gizonak Euskadin.
- Eurostat (2020). Digital Economy and Society.
- EUSTAT (2020). 2020/09/30eko prentsa-oharra, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak.2020.
- EUSTAT (2020). Informazio Gizartearen gainbegiratura, 2020
- Eusko Jaurlaritza (2016). Euskadiko 2020ko Agenda Digitala
- KZgunea (2019). KZgunearen 2019ko memoria. Gizarte digitalki aurreratu batentzako bultzada.
- Linares Bahillo, E. El iceberg digital Machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia en la CAE, (2018), publicado por Emakunde.
- Martínez, J. L., Castaño, C., Escot, L., eta Roque, A. (2020). Nuestras vidas digitales. Barómetro de la e-igualdad de género en España. Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Erakundeak argitaratua (Berdintasun Ministerioa)
- Mateos, S. eta Gómez, C. (2019). Libro Blanco de las mujeres en el ámbito tecnológico. Espainiako Gobernuko Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren Aurrerapen Digitalerako Estatu Idazkaritzak argitaratua.
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutua (2015). Situación de la e-igualdad en España 2015.
- Observatorio e-igualdad.net (2011). La brecha digital de género en España 2011. Un análisis multinivel.
- Telekomunikazioen eta informazio-gizartearen behatoki nazionala (2019). Informe anual del sector TIC y de los contenidos en España 2019.
- Robles, J. M. (2017). Por qué la brecha digital es un problema social.
- UNESCO (2019). I'd blush if I could: closing gender divides in digital skills through education.
- Van Dijk, J. A .G. M. (2006). Digital divide research, achievements and shortcomings.